

Nafarroan iaz baino %15 zereal gutxiago bildu da aurtengo uztan


Orotara, 678.000 tona bildu dira • Erriberan normal joan da uzta; iparralderagoko eskualdeetan, berriz, gehiago nabaritu dira bero handia eta lehortea • Garagarrak ondo eman du; gariak, berriz, gaizki

Joseerra Senar Iruñea

Gaizki, baina ez hain gaizki. «Galera askoz ere handiagoa izatea espero genuen», laburbildu du Jesus Goñi Nafarroako Intia sozietate publikoko esperimertzio arloko koordinatzaileak. Nafarroan, aurtengo zereal uztan 678.000 tona zereal bildu dira, iaz baino %15 gutxiago. Laborantza kooperatibek emandako datuak dira. Ez dute ordezkatzen zereal produkzioaren %100, baina bai lur guztien %80.

Erriberin eman dituzte aurtengo uzta datuak, kooperatibekin batera egindako jardunaldi batean. Datu orokorraz harago, diferentziak badira laborearen eta eskualdearen arabera. Oro har, Nafarroa hegoaldean aurreko urteetan adina bihi bildu dute. Alderantziz, iparralderago (erdialdean eta Zangoza aldean), errendimendua eskasagoa izan da oro har. Dena den, Intiaren arabera, eskualde arteko gorabeherok lursailen artekoak ere izan dira.

Goñiren arabera, «uzta okerragoa» izatea espero zuten, eta bildutakoa baino askoz ere gutxiago lortzea. «Lur sakonagoek hobeto eutsi diete» eguraldiaren gorabehera. Izan ere, zereala ere osteko hilabeteetan euri asko egin zuten –azarotik abendu erdialdera arte–. Aitzitik, udaberria eta uda



Nafarroan, zereal lursail bat. INTIA

oso lehorrak izan dira, eta ekainetik aurrera muturreko tenperatura historikoak izan dira.

Koltza asko

Bi zereal nagusien artean, garagarraren uzta gariarena baino hobea izan da. Oro har, garagarra

nahiko ondo joan da kantitate aldetik aurrera muturreko tenperatura historikoak izan dira. Zangoza aldean, azken hamabi urteetako uzta txarrena izan dute; Nafarroa erdialdean, berriz, azken hamabi urteetako uzta txarrena izan dute.

Gainerako zerealei dagokienez,

oloaren uzta «oso negatiboa» izan da. Koltza eta ekilorea errotaziorako labore gisa erabili ohi dituzte laborariek –batik bat, urteroko kanpainari ekitean, zereal nagusietarako ez diren lursail arnasa emateko–. Koltza eta ekilore olioen produkzio handia es-

pero zen aurtengoa. Hala, koltzari dagokionez 1984tik izandako «uzta-rik hoberena» izan da: 9.000 hektarea erein dira, eta hektareako bi tona lortu dira batez beste.

Beste zerealen aldean, ekilorea udaberrian erein ohi da, eta, Ukrainako gerrak eragindako eskasia ikusita, produkzioa nabarmen igotzea espero zen. Aurreikuspen horiek bete egin dira,



Uzta okerragoa espero genuen, galera askoz ere handiagoa izatea. Lur sakonagoek hobeto eutsi diote eguraldiari»

Jesus Goñi

Intiako esperimertzio koordinatzailea

hein batean; izan ere, laborariek handitu egin dute labore hori, errotaziorako, baina ez da espero bezain handia izan azalera: beste urteetan, batez beste 4.400 hektarea erein ohi dira, eta aurtengoa, %20 gehiago. Ekilorea oraindik ez da bildu, eta, ondorioz, ez dago bilketaren daturik.

Arabaren uzta txarra izatea espero da. Iragan astean, Javier Torre UAGAKO presidentek aurreratu zuen iaz baino %40 gutxiago biltzea espero dutela. Zonaka, zenbait tokitan txarragoa izango dela ohartarazi zuen.